EGOKITASUNA HIZKUNTZAREN ERABILERAN

Bilbao
2004

© Mendebalde Euskal Kultur Alkartea

Edizioaren arduradunak: Kaxildo Alkorta eta Eneko Barrutia

Azaleko irudia: Jesus Mari Txurruka

Fotokonposaketa: Ikur, S.A.
Cuevas de Ekain, 3, 1.º - 48005 Bilbao

ISBN: 84-931882-4-7
Legezko Gordailua: BI-1109-04

Aurkibidea

Aurkezpena
Kaxildo Alkorta 7

Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak
Iñaki Martínez de Luna 11

Egokitasuna hizkuntzaren erabileran: oinarrizkoak
Pello Esnal 39

Hizkuntza egokitasuna telebistan
Asier Larrinaga Larrazabal 65

Euskeraren gaurko erabileraz
Juan Manuel Etxebarria Ayesta 75

Hitz haragitu guzia da egoki (hori da erlijio guzietako *jainko:* hitz haragitua)
Patziku Perurena 95

Ahoskera baturantz
Txillardegi 111

Ni eta nire euskerea
Loli Astoreka 135

Ipuingintzaren bidean euskalkiak eta erregistroak urratzen hasi
Antton Irusta 141

Euskaldun zaharren gorantzan berbatxo bi
Jabier Kalzakorta 169

Aurkezpena

Kaxildo Alkorta

"Egokitasuna hizkuntzaren erabileran", hauxe dogu Mendebalde Kultura Alkarteak aurten, 2004an, antolatutako jardunaldien izenburua. Nondik oraturik eta nondik nora jorik badauen gaia da benetan bere, gai zabala, ikusbide askokoa, alkarren artean kontrako eretxiak sortzen dituana, urteetan -azken urteotan bai behintzat- beti geugaz doguna bai hizkuntzalariek bai hiztunok. Ohituta gagoz horretan, hizkuntzaren beraren egoera -euskerarena, zetan esan bere ez- halakoa da-eta.

Mendebalde Kultura Alkartearen helburuen artekoa da "euskal hizkuntza bere osotasunean, eta bereziki euskera batuari Euskal Herriko Mendebaldeko euskereak, bizkaiera izenaz ezagutzen danak, eskain leikion ondarea ikertzea eta bultzatzea". Hori horrela, 1997an antolatu ziran lehenengo jardunaldi hareetan, "Mendebaldeko euskara XX. Mende Goienean" izeneko liburu hartan, batez bere bizkaiera izan genduan begietan, beti bere euskerearen iraupenari begira, euskereari arnas barria emon guran.

Arantzazuko bilera ezkero pasa dira hogei, hogeita hamar, hogeita hamasei urte. Urteak badira, nahikoa agian zenbait eginkizunetarako, gitxiegi, beharbada, atzeraka egindako hizkuntza arautzeko eta hiztunok arau horreek zein beste zenbait bizigarri geureganatzeko.

Aldi horretan asko mugitu da euskera-mundua:

– Euskaltzaindiak hainbat arau garatu ditu, hainbat gomendio emon ditu eta horretan dihardu, batzuetan argi eta beste batzuetan iluntxoago ikusten dauan jarraibidearen bila.

– Hezkuntzan -ez Euskal Herri osoan-, lan handia egin da hezkuntza-ereduak arautzen, irakasleak euskalduntzen eta alfabetatzen, testuak euskeratzen edo euskeraz sortzen, era askotako baliabideak eskuratzen...

– Komunikabideetan bere badogu baliabiderik: telebista, irrati nagusi batzuk eta herrietako beste batzuk, aldizkari eta egunkari ezagunak, herri edo eskualdeetakoak... Barriak emoten dira, eztabaidak izaten dira, jolaseko programak e.a.

– Administrazinoak bere ahaleginetan dihardu administrazinoaren eta herritarren arteko hartu-emonak euskeraz bere izan daitezan, jendearentzako mezuak hizkuntza bietan argitara daitezan, administrazinoan lan egiten dabenak euskalduntzen...

– Jendetza handiek parte hartzen daben herri-mugimenduak bere ez ditugu gitxi.

– Euskaltegiak....

Erakunde eta mugimendu horreetan, partaide aktibo edo pasibo, mota guztietako hiztunak ditugu:

– euskaldun peto-petoak, ia elebakarrak, beren bizimoduan beti edo ia beti -nahitaez bere bai- euskeraz jarduten dabenak; ez asko, baina badira horrelakoak.

– euskaldun barriak, azken urteotan gero eta ugariago zorionez.

– euskeraz hobeto egiteko aukerak aprobetxatzen ez dabezanak.

– euskeraz jakin bai, baina egiten ez dabenak

– ikastoletan euskaldun edo erdaldun hasi eta han ibilitakoak...

– esatariak, artikulugileak, irakasleak...

Horrek guztiorrek eragina dau hizkuntzan, euskeran. Aspaldikoak dira "izioqui dugu" eta "guec ajutuez dugu" hareek, Errioxako Donemiliaga Kukulako monasterioan aurkitutako glosak, X. mende erdialdekoak. Harrezkero aldaketa asko izan eta jasan ditu euskerak. Ez da antzina-antzinakoa honako ohar hau, Azkuerena da-eta:

"Zortzirak. Cuando no se ha hecho mención de alguna cosa a la cual se refiere el numeral, la frase "zortzirak dira" equivale a "son las ocho (horas). Ya hablando de la palabra ordu se dijo que en B y G (tratándose de los numerales desde tres en adelante) se hace mención expresa de ordu sólo para dar fuerza a la expresión: zortzi orduak dagoz joten..."

Horrelako asko eta asko aspaldi galdu genduzan guk; orain irakurri eta nobedade dira guretzat. Zaharra barri. Eta aldaketa beti bere, bizitzak hori dau-eta bere. Zer da bizitza aldaketa baino? Jaio –nebaarreben artean sarri–, hazi zelan edo halan, heldu, zorionez edo txarrez seme-alabak izan edo ez, iraun eta hil edo amaitu. Hori onenera jota, okerrak bere gertatzen dira-eta bitartean: gerrak, istripuak, gaitzak, nahigabe latzak.

Txikitako argazkietako umearen aurpegiak eta egunkarietan zabaldutako eskelak dakarren agurearenak antzik badabe ala? Eta bera izan pertsonea! Hizkuntzen bizibidea bere gitxi gorabehera horrelakoa dala esan geinke eta asko aldatzen dala urteak aurrera eginaz bat. Igarri bako aldaketak leun samar gertatzen dira eta berez onartzen ditugu ia beti. Baina gerrek, istripuek, gatxek, barreneko nahigabeek eta horrelakoek zartatuta ixten dabe edozer. Gure hizkuntzan gaur egun beti legez aldaketan gara, ez baina berezko aldaketa nasai antzekoan. Zurrunbilo handi batek barruan hartuta biraka zorabiatuta gabilz.

Gaia, hasieran esan dogun legez, zabala da. Hori izango dabe hizpide "euskerearen erabilera egokirako gizarte-baldintza egokiak behar dirala, *corpus* egokia *status* egokiaren preminan dala" azalduko deuskun Iñaki Martinez de Lunak, "ahoskera finkatu beharra dagoela, bizitasunaren behar gorrian garala, argi fonologiko bila euskera oso bizi dagoen eskualdeetako hiztun ia elebakarren ahoskerara jo behar dala" dinon Txillardegik, "telebistako hizkuntza-egokitasunaz" jardungo dauen Asier Larrinagak, "jardunaldietako izenburuak gordeta dituan osagaiak bereizi eta banaka erakutsi eta aztertuko" deuskuzan Pello Esnalek, "hitz haragitu guzia egokia dala" dinoskun Patziku Perurenak, "euskerearen erabilerean euskaldun zaharren eta euskaldun barrien arloak aitatu eta herri-euskerea ahaztu ez egiteko aholkua emongo deuskun Juan Manuel Etxebarriak, "txikitan, euskeraz besterik berba egiten ez ebanean, besteakin komunikatzeko arazorik izan ez eban" Loli Astorekak, "teatro hizkera euskaldun barri bizkaitar baten begiradatik" erakutsiko dauen Patxo Telleriak, eta "ipuingintzaren eta ipuin-kontaldiaren inguruko zenbait gogoeta egiteaz gain gaztetxoek euskera afektiboa behar dabela eta horretarako euskalkia zutabe nagusi dala" esango deuskun Antton Irustak.

Izan bedi liburu hau Gotzon Garate aurtengo omenduari eskeinitako esker oneko opari eta oroigarri bere. Bai, Gotzon.

LAUGARREN EKITALDIA

Moderatzailea: Jacinto Ibarbe

11:05 MAHAINGURIA:

- Paho Tallerra: TEATRO-IHZKERA EUSKALDUN BARRI BIZKAITAR BATEN BEGIHADATIK Literatur esparru bakoitzak bere moldaketaka daukaz. Sagarrak "Tallaxo" deitu ostean antzeklasen berberak. Orain, Zeinkos behar dau izen? Zeinkos Bilboko eraikitzen berri zabi Leioaldeko eskualdian zabaxoaren belaunaldiaren ezpikiko bada?

- Loli Astorecka: NI ETA NIRE EUSKERA
Ume-garaian nire berkuntzko ekintzak erakusten zen. Haskoletan erdaraz jo ta ke jardun neban. Ian mundian zartakoren, antzeki mundian, aldebaldo egin behar izan nebean. Ilkkaleraz esin izan neban erdaraz batez indarra behar zelako. Hamalka anzo gaindiko behar izan arren, ez naz inoiz ikiddu eta ikiddukiko ez eta berti berta dot berriokaz komunikatu, jakina EUSKERAZ.

- Antton Irusta: IPUINAK, GOZAMENERAKO TRESNA
Ipuingintzak berkuntzko dan lanerako tresna nagoa. Kaiso, esanjkiroa izateko, kiskuntzak aldebiko izan behar dau. Entzuleaxeno beiko dau dauko ekiten beiduan behar da eta berretaukoreskalkia dagu eskaiko nagoa.

12:35 ITALIN-ERANTZUNAK

13:00 ALKARRIZKETA

13:15 OMENALDIA

Xabier Kaltaskorta aurkezle dala, omenaldia egingo jako Gotzon Garateri.

13:45 JARDUNALDIEN AMAIERA

MENDEBALDE

KULTURA ALKARTEA

bbk

Altonso Irigoienen zumendaritzapean sortu zan 1996ko udagoienean, lau urteko lanaren ostean. Mendebaldeko hizkera aberria, egokita eta prestigiatuz, euskara bera indartzea da helburua.

EHUko Irakasle Eskoletako ikasleentzat aukera askeko kreditu baten bidez izango dau.

Matrikula: Ikasleak: 10 euro. Gainekoak: 50 euro.
Ordainketako era: urtarrilaren 7ra arte,
BBKren 2095 0000 30 9022 0378 O kontu-zenbakian.
Argibideak: 94 407 8000 (10:00etatik 14:00etara)
Faxa: 94 422 0083
Helbide elektronikoak: euskaldunak@euskaltel.net
mendebaldeirrendebalde.com
Posta helbide: Euskararen Etxea. Arna Plaza 1.
48005 Bilbo

EGOKITASUNA HIZKUNTZAREN ERABILERAN

VIII. JARDUNALDIAK

PROGRAMA

Bilbon, 2004ko maiatzaren 7an eta 8an
Batzar Nagusien Aretoan
Hurtado Ametzaga, 6

MENDEBALDE

KULTURA ALKARTEA

BARIKUA , MAIATZAREN 7a

16:00 Harrera eta dokumentazioaren banaketa

16:30 Aurkezpena: Esti Iragarte

16:50 Tiptikoaren azalpena: Jesus Mari Txurruka

LEHEN ERITALDIA

Moderatzailea: Manu Ormazabal

17:00 EUSKERAREN ERABILERA EGOKIRAKO GIZARTE BALIMINTZAK
Iñaki Martínez de Luna

Euskeraren erabilera egokia bizpide dugula, hizkuntzaren corpus ai beginitzea deutsagu, esan besteer. Hemen, hizkuntzaren eta gizartearen artekoharta-emon estuak gogora ekarriaz, corpus egoki baterako beharrezkoa dan status egokiaren premiza azpimarratu nahi dogu. Huri da idazlan honetan ahiaponto harto dogun premisa.

17:30 EGOKITASUNA HIZKUNTZAREN ERABILERAN: ODNARRIZKOAK
Pello Urizar

Lau banek euskeraren ahozko nahi idatziko erabileraren egokitasunaz sei puntu garatuko ditu: 1) testualitatea eta gramatika, 2) estrategiak eta arazoak, 3) tradizionalki, 4) gaur egungo egoera, 5) erdaldunduaren eta bigarren dezdiratzaua, eta 6) SAO (Subjektua–Aditza–Osagarriak) ordena. Batzin horrek argi izan eskaro, ia berez sartzen dira orientabideak edo proposamenak.

18:00 ITAUN-ERANTZUNAK

18:10 ATSEDENALDIA

***

BIGARREN ERITALDIA

Moderatzailea: Juan Luis Goikoetxea

18:40 HIZKUNTZA EGOKITASUNA TELEBISTAN
Asier Larrinaga

Hizkuntzaren erabileraz diharduguneon, zuzentzaileen gramatikaren arauakaz lotzen dogu. Baina testu idatziei zein ahozkoei gehiago eskatzen deutsegu, tuzenak eta egokiak izatea. Egokitasuna komunikazino-egoerari erantsitea da. Telebistan be alperrik gabiliz hiztun komunida dozri erraspetua eskei ertik.

19:10 EUSKERAREN GAURKO ERABILERAZ
Juan Manuel Etxebarria

Euskearen erabilera bizkorenaik barako ikuspuntutik aztertzen da. Lehenengo partean
zelo bi aitatzen dire euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak. Hizkuntzaren meindologia eta ganetikoak arakatzen dire herri euskera berenberegi ahazto ez egiteko zholkatzaz.

Bigarren partean etnotesto baten elementu beliagazi batzuk aztertzen dire, bizkaiera literarizaz zein batzuan erabilleko.

19:40 ITAUN-ERANTZUNAK

20:00 AMAIERA

ZAPATUA, MAIATZAREN 8a

HIRUGARREN ERITALDIA

Moderatzailea: Juanjo Respaldiza

9:30 HITZ HARAGITU GUZTIA DA EGOKI
Patxiku Perurena

Euskera egokia dala eta, artak ezeun eustan lotzaik handiena. Orozkon, 9'aba baten biletan, gure aitagana Piter Txamberriko ehorri zan lehenengo:

- Sentimentutan akompañatzen ditut.
- Ola ezta esaten: "Abeskaben lagantzen dizut" - gurask.

Ha neure lotsarial Ustuko eban eta, euskera egokitu beharrokin aik pozoituta neukala aita.

10:00 EUSKAL FILOLOGIAN FUNTSATUTAKO BATU BIZIAZ.
Jose Luis Alvarez Enparantza "Uxillardegi".

Hizkuntzen berezko erabilpena, jatorrizkoa, ahozkoa da. Izkribazko Batua lortzea ucaiz handia izan da. Baina Ahozkera Batua lortzen ez bada, mangu itzeko dogu gure mintzaira. Eta arrazkeriaz eta lotsaz, hilteta kondenauta.

11:15 ITAUN-ERANTZUNAK

11:45 ATSEDENALDIA

***

Egokitasuna Hizkuntzaren Erabileran